

3.1.1. Ikastetxeko Curriculum Proiektua (ICP) egitea eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen hobekuntza eta ikasleen ebaluazioa bultzatzeko curriculum-neurrien aldaketa sustatzea, horrela ikasleen errendimendua hobetzeko.

3.1.2. Programazio didaktikoak eta ikasgeletakoak ICPekin eta ikastetxeko beste dokumentu batzuekin koherentzian egiten eta berrikusten direla ziurtatzea.

3.1.3. Ikasketarako denbora optimizatzea (eskolak ordurako hastea, ikasgelan denbora modu eraginkorren erabiltzea, metodologia eraginkorrak baliatzea, beste denbora eta leku batzuk erabiltzea...).

#### 1. ZUZENDARITZAREN ONIRITZIA DUTEN PROGRAMAZIOEN ARTXIBATEGIA

- Maila/ziklo bakoitzeko arlo/eremu guztietarako programazioak izatea (baliteke zuzendaritzan ez egotea, dagokion ziklo, sail edo atalean artxibatuta dagoelako; halaber, artxibategi elektronikoetan egon daitezke, baina ikusi egin behar dira, badaudela egiaztatzeko).

#### 2. PROGRAMAZIOEN BERRIKUSPENA

- Programazioen berrikuspena ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioarekin eta/edo irakaskuntza-prozedurekin lotuta dagoela egiaztatzea:
  - ✓ Klaustroaren akta
  - ✓ Mailako eta zikloko lantaldearen akta
  - ✓ Saileko akta
  - ✓ Koordinazio pedagogikorako batzordearen akta
  - ✓ Urteko memoria

#### 3. FAMILIA ETA IKASLEEI EBALUAZIOKO, SUSTAPENKO ETA TITULAZIOKO IRIZPIDEAK JAKINARAZTEKO JARRAITUTAKO PROZEDURA

- Familiei eta ikasleei ebaluazioko, sustapeneko eta titulazioko irizpideak jakinarazteko prozedurak daudela egiaztatzea (azkeneko biak oinarrizko hezkuntzan soilik):
  - ✓ Zirkular bidez edo idatzizko komunikazioaren bitartez.
  - ✓ Ikastetxeko webgunearen bidez.
  - ✓ Bileretan (deialdi-erregistroa, aktak...)

#### 4. IKASTETXEKO ESPAZIOAK (behaketa)

- Ikastetxeko espazio guztien hezkuntza-asmoa egiaztatzea:
  - ✓ Korridoretako dekorazioa, hormak, ikasgelak...
  - ✓ Jolastokia (esperimentatzeko aukera ematen duten instalazioak)
  - ✓ Lantegiak
  - ✓ Baratzeak, lorategiak...

#### 5. ORDUTEGIAK (ebidentziak jasoko dira)

- Denboraren kudeaketaren optimizazioa egiaztatzea:
  - ✓ Ordutegiak zabaltzea (harrera-ordua, eskolaz kanpoko ekintzak...)
  - ✓ On-line ikaskuntza-plataforma.
  - ✓ Ikasleak etortzen direla eta ordurako iristen direla kontrolatzeko prozedura.
  - ✓ Ordutegiak egiteko prozedura, eskola-aldaketetan denborarik ez galtzeko.